



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Aitzingermanikoaren hitz-ordena
berreraikuntzaz: Adarkatze
Norabide Teorian (ANT)
oinarritutako hurbilpen tipologikoa**

Iker Salaberri

10-14 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.01.01>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



Aitzingermanikoaren hitz-ordena berreraikuntzaz: Adarkatze Norabide Teorian (ANT) oinarritutako hurbilpen tipologikoa

Salaberri, Iker.

Hizkuntzalaritza historikoa, germaniar hizkuntzak, sintaxia, tipologia

Letren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

ikersalaberri@gmail.com

Laburpena

Ekarpen honek laburbiltzen duen ikerketaren helburua germaniar hizkuntza guztiek amankomunean daukaten arbasoaren hitz-ordena berreraikitzea da. Horretarako orain arte egin diren saiakerekin zerikusia duen eta aldi berean berritzailea den hurbilpena egiten du autoreak: Adarkatze Norabide Teorian (Branching Direction Theory) (Dryer, 1992) oinarritutako ikerketa da. Teoria hau hitz-ordenaren unibertsal tipologikoen inguruan egindako ikerketaren ondorioa da. Gainera, erabiltzen diren datuetatik asko oso gutxi aztertutako germaniar hizkuntza batetik atereak dira, sajoiera zaharretik, hain zuzen ere. Emaitzek orain arteko ikerketaren aurkikuntzak hobetzen dituzte.

Hitz gakoak: aitzingermanikoa, sajoiera zaharra, Adarkatze Norabide Teoria, unibertsal tipologikoak, hitz-ordena

Abstract

The aim of the research summarized by this contribution is to reconstruct the word order of the ancestor common to all Germanic languages. With this aim in mind the author undertakes an approach that is related to previous attempts and which at the same time is innovative: this investigation is based on the Branching Direction Theory (Dryer, 1992). Said theory is the result of research on typological universals of word order. Moreover, most of the data are drawn from Old Saxon, a severely underinvestigated Germanic language. The results improve findings made by research so far.

Keywords: Proto-Germanic, Old Saxon, Branching Direction Theory, typological universals, word order

1. Sarrera eta ikerketaren motibazioa

Matthew Dryer amerikar hizkuntzalariak 1992an frogatu zuen hamarkada batzuk lehenago Joseph Greenberg lankideak proposatutako hitz-ordenaren unibertsal tipologikoak (Greenberg, 1963) bazirela, lehen aldiz test estatistikoak erabiliaz. Unibertsal tipologikoen existentzia frogatu izanak bi bide garrantzitsu ireki zituen: (a) unibertsal hauetan oinarritutako teoria, Adarkatze Norabide Teoria¹ (ANT) delakoa sortzea ahalbidetu zuen, eta (b) hizkuntza aldaketa unibertsal hauen arabera gertatzen dela iradoki zuen. Aurkikuntza honek, hartara, hizkuntzalaritzarentzat eta harekin lotutako hainbat alderdientzat ondorioak izan ditzake: hizkuntzalaritza historikorako, hizkuntza prozesamendurako, itzulpengintzarako, hizkuntza jabekuntzarako eta abarretarako. ANTk, gainera, zuzenean inoiz lekukotu ez diren hizkuntzen berreraikuntza ahalbidetzen du. Errealitate hau gutxi aztertutako hizkuntza batekin lotuz gero, ikerketan aurrerapauso garrantzitsua egiteko aukera dago, eta horixe da, izan ere, ekarpen honek laburbiltzen duen tesiaren helburu nagusia.

2. Arloaren egoera eta ikerketaren helburuak

Sajoiera zaharra, oro har, oso gutxi ikertuta dagoen hizkuntza da, batez ere garai berean (c. 800-1000 K. o.) lekukotutako germaniar hizkuntzekin alderatuta:

It is surprising that, in comparison to the vast amount of work dealing with the syntax of Old English, that of Old Saxon has rarely been given any serious attention, a lack noted elsewhere in the literature [...] it is clear that the language is in need of further theoretically informed empirical work (Walkden, 2014: 15).

Ikerketa falta honen zergatia ez dago garbi. Hizkuntza jakin baten sintaxi historikoa ikertzeko corpus handiak behar dira, baina sajoiera zaharrak horrelako arazorik ez dauka, 80.000 hitz inguruko eta hainbat testutako corpora baitu (Sanders, 1985: 1105). Egoera honen oinarrian dagoen arrazoia segur aski hurrengo izango da: ingeles zaharra, goi aleman zaharra eta norvegiera zaharra bezalako

¹ Adarkatze Norabide Teoriak munduko hizkuntzak bi tipoetako batean banatzen direla proposatzen du, ezker-adarkarietan eta eskuin-adarkarietan. Ikus behe-rago kontzeptu hauen definizioak.

hizkuntzek gaur egun jende askok erabiltzen dituen ondorengoak utzi dizkigute, baina sajoiera zaharrak, berriz, lausoki “behe alemana” deitzen zaion eta galbidean dagoen dialekto multzoa baizik ez digu utzi. Hartara, ulertzekoa da hizkuntza hau jende gutxiagok ezagutzea eta ikertu nahi izatea.

Nolanahi ere den, sajoiera zaharraren aitzinakotasunak germaniar hizkuntzek amankomunean daukaten arbasoa berreraikitzea ahalbidetzen digu². Modu honetan, gaur egun gori-gori dauden hainbat eztabaida konpon eta argi litezke: aitzingermanikoa hizkuntza ezker-adarkaria zen (Lehmann, 1974, Ramat, 1998) edo ez (Friedrich, 1975, Eypörsson, 2011), hizkuntzak unibertsal tipologikoengatik aldatzen diren (Hawkins, 1983, Harris, 2000) edo beste arrazoi batzuegatik (Lightfoot, 1979, 2002), eta abar. Azken bi hauek dira, batez ere, ikerketa honen helburu nagusiak.

3. Ikerketaren muina

Dryerrek (1992: 83-100) hurrengo hitz-ordena bikoteak proposatzen ditu adarkatze norabidearen adierazletzat. Proposamen honen arabera, ezker-adarkariak diren bikoteen kasuan ezkerreko kidea adarkaria da; hau da, sintagma da, azpimailatan bereiz daiteke (adibidez, aditz sintagma (VP) izen sintagmak (NP) eta aditzak (V) osatua izan daiteke, non izen sintagma adarkaria den, bera ere izenaren (N) eta beste kide baten (XP) artean zati daitekeelako; ikus beheko (1a-b) eta (2a-b) adibideak). Eskuin-adarkariak diren bikoteen kasuan eskuineko kidea da adarkaria. Hortik dator teoriaren izena:

1. irudia. Adarkatze norabidearen adierazleak

Ezker-adarkaritasuna	Eskuin-adarkaritasuna
Izenlaguna-Izena	Izena-Izenlaguna
Genitiboa-Izena	Izena-Genitiboa
Izena-Adposizioa	Adposizioa-Izena
Erlatibozko perpausa-Izena	Izena-Erlatibozko perpausa
Zenbatzailea-Izena	Izena-Zenbatzailea
Izenordain posesiboa-Izena	Izena-Izenordain posesiboa
Erakuslea-Izena	Izena-Erakuslea
Izena-Artikulua	Artikulua-Izena
Alderatzailea-Alderatua	Alderatua-Alderatzailea
Aditza-Laguntzailea	Laguntzailea-Aditza
Subjektua-Aditza	Aditza-Subjektua
Osagarria-Aditza	Aditza-Osagarria
Predikatua-Kopula	Kopula-Predikatua
Moduzko aditzondoa-Aditza	Aditza-Moduzko aditzondoa
Adposizio sintagma-Aditza	Aditza-Adposizio sintagma
Alderatzailea-Aditza	Aditza-Alderatzailea
Perpausa-Menderagailua	Menderagailua-Perpausa
Perpausa-Galdetzailea	Galdetzailea-Perpausa

Goian aipatutako hainbat autoreren iritziari jarraikiz, jakintzat hartzen bada hizkuntzak ezker-adarkaritasunetik eskuin-adarkaritasunera aldatzen direla eta alderantziz, pentsatzekoa da sajoiera zaharraren sintaxiak aurreko hizkuntza fasearen, hots, aitzingermanikoaren hitz-ordena berreraikitzen lagun diezagukeela³. Beraz, hurrengo egin beharreko pausua sajoiera zaharrean lekukotuta dauden adarkatze norabidearen adierazleak aztertzea da⁴. Ikerketa honek ondoko emaitzak ditu, besteak beste:

1. taula. Izenaren eta izenordain posesiboaren arteko ordena erlatiboa sajoiera zaharrean

Testua	Iz. pos.-Izena	Izena-Iz. pos.	N
--------	----------------	----------------	---

² Ikerketa honek aintzat hartzen dituen testuen artean *Heliand* dago, hainbat eskuizkribu eta zati desberdin dauzkan bederatzigarren mendeko harmonia ebangelikoa, eta baita mende bereko genesiaren itzulpen bat ere.

³ Helburua hizkuntzaren fase zaharragoak berreraikitzea denez gero, hizkuntzaren aldaketan alderdirik kontserbadoreenak hartu behar dira aintzat. Zentzu honetan, ezaguna da hainbat arrazoiengatik mendeko perpausak perpaus nagusiak baino gordetzaileagoak direla (Bybee, 2002). Beraz, ahal izan den neurrian mendeko perpausetako datuak hartu dira kontuan.

⁴ Sajoiara zaharrez ezin dira, halaber, adierazle guzti hauek aztertu. Horren arrazoia sinplea da: aitzin germanierak eta haren ondorengoek ez zeukaten artikulurik, aditz laguntzailerik, ez eta galdetzailerik ere (Lehmann, 1974, Ramat, 1998).

<i>V-P-L-S</i> (840-850)	66 (% 92)	6 (% 8)	72
<i>Genesia</i> (850)	78 (% 89)	10 (% 11)	88
<i>Konfesioa</i> (850)	26 (% 100)	0 (% 0)	26
<i>Munich</i> (850)	705 (% 89)	85 (% 11)	790
<i>Psalm K.</i> (900)	25 (% 93)	2 (% 7)	27
<i>Cotton</i> (950)	1.164 (% 92)	97 (% 8)	1.261
<i>Homilia</i> (975)	3 (% 100)	0 (% 0)	3
<i>Besteak</i> (850-1050)	52 (% 90)	6 (% 10)	58
Guztira	2.119 (% 91)	206 (% 9)	2.325

2. taula. Aditzaren eta adposizio sintagmaren arteko ordena erlatiboa saioiera zaharrean


Testua	Perpaua	AdpS-Ad.	Ad.-AdpS	Guztira AdpS-Ad.	Guztira Ad.-AdpS
<i>V-P-L-S</i> (840-850)	Nagusia	12	39	33 (% 37)	56 (% 63)
	Mendekoa	21	17		
<i>Genesia</i> (850)	Nagusia	10	26	30 (% 47)	34 (% 53)
	Mendekoa	20	8		
<i>Konfesioa</i> (850)	Nagusia	1	0	13 (% 100)	0 (% 0)
	Mendekoa	12	0		
<i>Munich</i> (850)	Nagusia	196	475	408 (% 38)	664 (% 62)
	Mendekoa	212	189		
<i>Psalm K.</i> (900)	Nagusia	1	9	3 (% 14)	19 (% 86)
	Mendekoa	2	10		
<i>Cotton</i> (950)	Nagusia	250	585	507 (% 38)	814 (% 62)
	Mendekoa	257	229		
<i>Homilia</i> (975)	Nagusia	0	0	1 (% 100)	0 (% 0)
	Mendekoa	1	0		
<i>Besteak</i> (850-1050)	Nagusia	8	26	18 (% 40)	27 (% 60)
	Mendekoa	10	1		
Guztira	Perpaua nagusia			478 (% 29)	1.160 (% 71)
	Mendeko perpaua			535 (% 55)	444 (% 45)

3. taula. Predikatuaren eta kopularen arteko ordena erlatiboa saioiera zaharrean

Testua	Perpaua	Pred.-Kp.	Kp.-Pred.	Guztira Pred.-Kp.	Guztira Kp.-Pred.
<i>V-P-L-S</i> (840-850)	Nagusia	6	27	19 (% 34)	37 (% 66)
	Mendekoa	13	10		
<i>Genesia</i> (850)	Nagusia	3	21	13 (% 32)	28 (% 68)
	Mendekoa	10	7		
<i>Konfesioa</i> (850)	Nagusia	1	0	10 (% 100)	(% 0)
	Mendekoa	9	0		
<i>Munich</i> (850)	Nagusia	71	413	212 (% 29)	526 (% 71)
	Mendekoa	141	113		
<i>Psalm K.</i> (900)	Nagusia	4	13	9 (% 38)	15 (% 62)
	Mendekoa	5	2		
<i>Cotton</i> (950)	Nagusia	89	514	256 (% 28)	656 (% 72)
	Mendekoa	167	142		
<i>Homilia</i> (975)	Nagusia	0	1	2 (% 66)	1 (% 33)
	Mendekoa	2	0		
<i>Besteak</i> (850-1050)	Nagusia	11	36	20 (% 34)	39 (% 66)
	Mendekoa	9	3		
Guztira	Perpaua nagusia			185 (% 15)	1.025 (% 85)
	Mendeko perpaua			356 (% 56)	277 (% 44)

Emaizta orokorrak modu eskematikoan honela adieraz daitezke:

2. irudia. sajoiera zahararen adarkatze norabidearen adierazleak⁵



4. Ondorioak

Aurreko puntuko emaitzek zalantzarik gabe erakusten dute sajoiera zaharra (eta batez ere kontserbatzaileago diren mendeko perpausen datuak) kontuan hartuz gero aitzingermanikoaren hitz-ordena ezker-adarkaria berreraiki beharra dagoela. Hau da ikerketa honen emaitza nagusietako bat. Hala, bigarren puntuko lehen ikerketa galderari erantzuna eman diogu. Bigarren galderari dagokionez, sajoiera zaharra gehienbat ezker-adarkaria eta gaur egungo germaniar hizkuntzak batez ere eskuin-adarkariak direla kontutan izanik, proposa daiteke oro har hizkuntzak ezker-adarkariak izatetik eskuin-adarkariak izatera igarotzen direla. Aldaketa noranzko hau dagoeneko sajoiera zaharrean ikus daiteke:


- (1) a. *erla gelīco* “gizakien modukoa” (*Heliand*, Munich 1817b) (alderatzailea-alderatua)
- b. *gelīhc sulicaro lōgnun* “halako sugarren modukoa” (*Genesis*, 560a) (alderatua-alderatzailea)

3. irudia. Adarkatze norabidearen aldaketa sajoiera zaharrean (1)



- (2) a. *ic is engil biun* “ni haren aingerua naiz” (*Heliand*, Munich 119b) (predikatua-kopula)
- b. *ik biun forabodo* “ni mezularia naiz” (*Heliand*, Cotton 931a) (kopula-predikatua)

4. irudia. Adarkatze norabidearen aldaketa sajoiera zaharrean (2)



5. Etorkizuneko ikerketa

⁵ Hemen eta behegaro erabilitako laburpenek ondorengo esannahia daukate: Poss = izenordain posesiboa; N = izena; S = subjektua; MAdv = moduzko aditzondoa; Num = zenbatzailea; St = alderatzailea; Adj = izenlaguna edo alderatua; P = predikatua; C = kopula; V = aditza; Aux = aditz laguntzailea; G = genitiboa; IO = zehar osagarria; DO = osagarri zuzena; AdP = adposizio sintagma; Adp = adposizioa; Rel = erlatibozko perpausa; Eq = egitura ekuatiboa (alderatzailearen azpitaldea); NP = izen sintagma; VP = aditz sintagma eta AdjP = izenlagun sintagma.

Etorkizuneko ikerketak ondorengo helburua izan beharko luke: hemen saioiera zaharrean oinarrituta lortu diren bezalako emaitzak familia bereko beste hizkuntzetan bilatzea, aitzingermanikoaren hitz-ordena datu gehiago oinarri hartuta hobeki berreraikitzeke.

6. Erreferentziak

- Bybee, J. (2002): "Main clauses are innovative, subordinate clauses are conservative. Consequences for the nature of constructions", in J. Bybee eta M. Noonan (arg.), *Complex sentences in grammar and discourse: Essays in honor of Sandra A. Thompson*, John Benjamins, Amsterdam, 1-17.
- Dryer, M. (1992), "The Greenbergian word order correlations", *Language* 68, 1, 81-138.
- Eyþórsson, Þ. (2011), "Variation in the Syntax of the Older Runic Inscriptions", in J. Knirk eta H. Williams (arg.), *Futhark. International Journal of Runic Studies* 2, 27-50.
- Friedrich, P. (1975): *Proto-Indo-European Syntax. The Order of Meaningful Elements*, Montana College of mineral Sciences, Butte.
- Greenberg, J. (1963): "Some universals of grammar with particular reference to the order of meaningful elements", in J. Greenberg (arg.), *Universals of Human Language*, MIT Press, Cambridge, 73-113.
- Harris, A. (2000): "Word order harmonies and word order change in Georgian", in R. Sornicola, E. Poppe eta A. Shisha-Halevy (arg.), *Stability, Variation and Change of Word-Order Patterns over Time*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam/Philadelphia, 133-163.
- Hawkins, J. (1983): *Word Order Universals*, Academic Press, New York.
- Lehmann, W. (1974): *Proto-Indo-European syntax*, University of Texas Press, Austin.
- Lightfoot, D. (1979): *Principles of Diachronic Syntax*, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (2002), "Myths and the prehistory of grammars", *Journal of Linguistics* 38, 113-136.
- Ramat, P. (1998): "The Germanic languages", in A. Ramat eta P. Ramat (arg.), *The Indo-European Languages*, Routledge, Londres, 380-414.
- Sanders, W. (1985): "Die Textsorten des Altniederdeutschen", in W. Besch, O. Reichmann eta S. Sonderegger (arg.), *Sprachgeschichte. Ein Handbuch zur Geschichte der deutschen Sprache und ihrer Erforschung*, Walter de Gruyter, Berlin, 2, 1103-1109.
- Walkden, G. (2014): *Syntactic Reconstruction and Proto-Germanic*, Oxford University Press, Oxford.

7. Eskerrak eta oharrak

Lan honek Euskal Herriko Unibertsitateko Carlos García Castillero eta Ganteko Unibertsitateko Anne Breitbarth irakasleek zuzendutako tesi proiektua du oinarri. Ikerketaren zati bat Ganteko Unibertsitatean egin zen 2015eko otsailetik urte bereko maiatzera bitartean.